

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,  
UDAL JABARI PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA USTIAPEN BEREZIARI DAGOZKION  
TASAK ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeke aurkezten ditu araua aldatzeko ondoko proposamenak, helburu izanik euskararen aurrerabidea laguntzea Donostian:

1.- Aldatzea jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza, 12. artikulua 3. atalaren a) letra honela MOLDATUTA:

a) Udal baimena lortzea. Eskatzaileak zehaztuko duen jarduerarako baimenaz gain, arauaren eranskineko C) ataleko jardueren kasuan, Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena beharko du fidantza berreskuratzeko, ziurtatzeko jarduera horrek Euskararen Erabilera arautzen duen Udal Ordenantzako 25. artikulua 3. atala bermatzen duela.

2.- Aldatzea jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzaren eranskina, 2. atalaren C) letrako 34. puntua honela MOLDATUTA:

% 20ko tarifa murrizketa izango dute, euskarriek euskarari lehentasuna ematen badiote.

Donostia, 2020ko abuztuaren 6an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea